

PROBA ESPEZIFIKOA

2019ko PROBA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Azterketaren egitura eta atal bakoitzaren balorazioa:

2 galdera teoriko; guztira, 3 puntuko balioa. Galdera bakoitzak, gehienez, 1.5 puntuko balioa izango du.

2 problema; guztira, 4 puntuko balioa. Atal honetan, ikasleak 3 problemen artetik 2 hautatu eta ebatzi beharko ditu. Problema bakoitzak, gehienez, 2 puntuko balioa izango du.

Test motako 10 galdera, lau erantzun aukeran baina zuzena erantzun bakarra da. Guztira, **3 puntuko** balioa izango dute. Erantzun egoki bakoitzari 0.3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko 0.1 puntu kenduko dira, eta erantzun gabe utziz gero, ez da punturik kenduko. Atal honetan, dena den, azken emaitza ez da inoiz negatiboa izango.

Galdera teorikoetan eta problemetan atal bakoitzaren balorazioa adierazita dago, baita zuzentzeko irizpidea ere.

GALDERA TEORIKOAK:

- 1) Loterian milioi bat euro egokitu bazaizkit, eskasia ekonomikoa izaten jarraituko nuke? (1.5 puntu)
- 2) Azaldu erantzukizun mugatuko sozietatearen ezaugarri nagusiak. (0.3 ezaugarri bakoitza, gehienez 1.5 puntu)

PROBLEMAK:

Aukeratu itzazu hiru problema hauetatik bi.

- 1) Enpresari gazte batek, bere garajea, *Txinatik* ekarritako osagaiak mihiztatuta berak egindako *vintage* itxurako bizikletak saltzeko negozio bat muntatzea pentsatu du. Jakin nahi du:
 - a) Dirua ez galtzeko saldu behar duen bizikleta kopurua, kontuan izanik bakoitzaren salmentaren prezioa 600 eurokoa izango dela, 90.000 euroko kostu finkoak eta unitateko 100 euroko kostu aldakorak izango dituela. (0.5 puntu)
 - b) Zenbatekoa izango da emaitza 200 bizikleta salduz gero? Zenbatekoak dira kostuak guztira? Zenbatekoak izango lirateke mozkinak kasu horretan? (0.5 puntu)
 - c) Irudikatu arestian adierazitako guztia. (0.5 puntu)



ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

d) Inolako eragiketarik egin gabe, 150 unitate salduko balitu, zein aldetan egongo litzateke, mozkinen aldean edo galerenetakoan. (arrazoitu erantzuna) (0.5 puntu).

2) Taula honetan, Obabaren 2018ko laugarren hiruhileko datuak daude (kopuruak, milakotan):

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
16 urtetik gorakoak	25.000	13.000	12.000
Aktiboak	17.000	9.000	8.000
Landunak	15.000	8.200	6.800
Langabeak	2.000	800	1.200
Ez-aktiboak	8.000	4.000	4.000

- a) Kalkulatu eta interpretatu Obabako jarduera tasa. (0.75 puntu)
- b) Kalkulatu eta interpretatu emakumeen langabezia-tasa . (0.75 puntu)
- c) Kalkulatu Obabako biztanleria aktiboaren ehuneko aldakuntza, 2018ko hirugarren hiruhileko datuarekiko, jakinda 16.000 pertsonak osatzen zutela biztanleria aktiboa hiruhileko horretan. (0.5 puntu)

3) Sozietate batek ondoko saldoak ditu bere kontuetan, eurotan: altzariak, 35.000; Kapital soziala, 125.000; Zerbitzuak emateagatik hartzekodunak, 30.000; bankuak k/k, 59.000; hornitzaileak, 80.000; bezeroak, 81.000; zordunak, 5.000; garraio elementuak, 100.000; epe-laburreko zorrak, 20.000; salgaiak, 50.000; y, epe-luzeko zorrak, 100.000.

Hau eskatzen da:

- a) Kalkulatu ekitaldiko emaitza (0.5 puntu)
- b) Osatu egoera-balantzea ondare masetan sailkatuta (0.5 puntu)
- c) Kalkulatu eta azaldu maniobra funtsa (kalkulua 0.5 puntu, azalpena 0.5 puntu).

TEST MOTAKO GALDERAK

Ingura ezazu aukera zuzena zirkulu batez.

- 1) Ekonomian eragile ekonomikoak honako hauek dira:
 - a) Familiak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta administrazio publikoak.
 - b) Familiak , enpresak eta sektore publikoa
 - c) Aurreko biak zuzenak dira.
 - d) Aurreko bat ere ez da zuzena.



ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- 2) Gaur egun gehien erabiltzen diren sistema ekonomikoak dira:
- Merkatu ekonomiak
 - Ekonomia mistoak.
 - Planifikazio zentralekoak.
 - Aurreko guztiak zuzenak dira.
- 3) Oreka prezioa da:
- Ekoizleek eskaintzeko prest dagoeneko prezioa.
 - Eskariak erosteko prest dagoeneko prezioa.
 - Aurreko biak zuzenak dira.
 - Eskariaren (erosleen) eta eskaintzaileen (saltzaileen) planek bat egiten duten puntuari dagokion prezioa.
- 4) Lehia ez-perfektuaren motak dira:
- Monopolioa, oligopolioa eta lehia monopolistikoa.
 - Merkatuen lehia beti da osoa.
 - Erosle eta saltzaile asko daude merkatuko prezioan eraginik ez dutenak
 - Aurreko bat ere ez da zuzena.
- 5) Enpresaren pasibo ez-korrontea honela definitzen da:
- Enpresaren epe luzeko eskubideak edo inbertsioak.
 - Enpresaren epe laburreko eskubideak edo inbertsioak.
 - Obligazioak edo finantzaketa iturriak, urtebetetik gorako epe-mugarekin.
 - Obligazioak edo finantzaketa iturriak, urtebetetik beherako epemugarekin.
- 6) Berreskuratze epea edo pay Back gisa ezagutzen den inbertsioak aukeratzeko irizpideak:
- Inbertsio errentagarriena aukeratzera darama.
 - Ez du kontuan hartzen diruaren balio desberdina denbora pasatu ahala.
 - Kaxa-fluxuak eguneratzen ditu eta hasierako ordainketarekin konparatzen ditu.
 - Inbertsioaren bizitza osoan egiten diren kutxa-fluxu guztiak hartzen ditu kontuan.
- 7) Errenta Nazionalak honako hauei egiten die erreferentzia:
- Lana, kapitala eta lurra jasotzen dituzten errenta osoei.
 - Ekoizpen nazionalako faktoreei ordaindutako ordainsarien batura da.
 - Herialde bateko biztanleei ordaindutako soldatak, alokairuak, interesak eta irabaziak dira.
 - Aurreko guztiak zuzenak dira.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2019ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2019

ENPRESAREN EKONOMIA *ECONOMÍA DE LA EMPRESA*

- 8) Sozietate anonimo bati dagokionez:
- Bere kapital soziala akzioetan zatituta dago.
 - Bazkideek erantzukizun mugagabea dute.
 - Bazkide bakoitzak eskubide politiko batzuk ditu, baina ez ekonomikoak.
 - Ez du burtsan kotizatzeke aukerarik.
- 9) Epe jakin batetarako inbentarioaren kudeaketari eta kostuari dagokienez, eskaera bolumen egokiena honako hauen arabera da:
- Biltegitratzeko kostua eta eskaerak bidaltzeko kostua.
 - Produktuaren erosketa-kostua.
 - Finantza-kostua.
 - Aurreko kostu guztiek baldintzatzen dute eskaeraren bolumen egokiena.
- 10) Produktu bat sustatzearen helburua, mix marketinaren osagai gisa, honako hau da:
- Kontsumitzailearen beharrak asetzea.
 - Produktuaren existentzia, abantailak eta asetzen dituen premiak jakinaraztea.
 - Produktua kontsumitzailearen eskura jartzea behar duen unean, lekuan eta kopuruan.
 - Ondasun baten balioa merkatuan adieraztea eta bezero bat ordaintzeko prest egotea.



**EBAZPENA ENPRESAREN EKONOMIA
(2019ko maiatza)**

GALDERA TEORIKOAK:

- 1) Bai, diru-eskasiak ez du zerikusirik diru gutxi edo diru asko irabaztearekin. Eskasia unibertsala da. Hau da, nire baliabideek urriak izaten jarraituko dute, eta aukeratu beharko dut nola kudeatu nire milioi bat euroak eta nire denbora. Izan ere, jende askok irabazitakoa berehala xahutu eta lehen baino okerrago bizitzen amaitu du. Zalantzarik gabe, paradoxa bat.
- 2)
 - a) Bazkide batek edo gehiagok eratu behar dute.
 - b) Bazkideen erantzukizuna sozietatean egindako kapital-ekarpenaren arabera da.
 - c) Sozietatearen kapitala partaidetza izeneko zatitan banatuta dago. Partaidetzak erantzukizun mugatuko sozietate baten zati metagarri eta zatiezinak dira. Bazkide guztiek elkarrekin eta batera egindako fundazioa da. Sozietatea eratzeko kapitala dirutan, ondasunetan eta eskubidetan gauzatu daiteke.
 - d) Sozietatearen izenak honela egon behar du osatuta: izena eta, ondoren, "Erantzukizun Mugatuko Sozietatea" edo "Sozietate Mugatua", edo SM sigla —edo, gaztelaniaz, SRL edo SL sigla—.
 - e) Sozietatearen partaidetza transmititzeko, sozietatearen administratzaileei jakinarazi behar zaie.
 - f) Sozietatearen kapitalak 3.005,06 eurokoa izan behar du gutxienez
 - g) Sozietateen gaineko zergak zergapetzen ditu horrelako sozietateak.

PROBLEMAK

1.

a) $P \times Q = KF + (K_a \times Q) \rightarrow 600 \times Q = 90.000 + (100 \times Q)$

Q = 180 bizikleta


b) **Kostu osoak:** $90.000 + (100 \times 200) = 110.000 \text{ €}$

Sarrerak: $600 \times 200 = 120.000 \text{ €}$

Etekina: $\text{Sarrerak} - \text{kostuak} = 120.000 - 110.000 = 10.000 \text{ €}$



c)



d) 150 unitate salduz gero, galeren aldean egongo litzateke. Errentagarritasun-ataria 180 unitate izanik, horren azpitik egoteak berekin dakar galerak izatea.

2.

$$a) \text{ Obabako jarduera tasa} = \frac{\text{Aktiboak}}{16 \text{ urtetik gorako biztanleak}} = \frac{17.000}{25.000} = \% 68$$

$$b) \text{ emakumeen langabezia tasa} = \frac{\text{emakume langabeak}}{\text{emakume aktiboak}} = \frac{1.200}{8.000} = \% 15$$

$$c) \text{ Biztanleria aktiboaren aldakuntza (\%)} = \frac{\text{aktiboak}_2 - \text{aktiboak}_1}{\text{aktiboak}_1} = \frac{17.000 - 16.000}{16.000} = \% 6,25$$

3.

AKTIBOAK		ONDARE GARBIA ETA PASIBOAK	
Aktibo ez-korrontea	135.000	Ondare Garbia	100.000
Garraio-elementuak	100.000	Kapital soziala	125.000
altzariak	35.000		
		Ekital. emaitza	-25.000
		Pasibo ez-korrontea	100.000
Aktibo korrontea	195.000	Epe luzeko zorrak	100.000
Izakinak	50.000	Pasibo korrontea	130.000
Bezeroak	81.000	Mailegu epe lab	20.000
Zordunak	5.000	Hornitzaileak	80.000
Bankua k/k	59.000	Hartzekodunak	30.000
AKTIBOAK GUZTIRA	330.000	ONDARE GARBIA ETA PASIBOAK GUZTIRA	330.000

b) Maniobra-funtsak enpresaren epe laburreko finantza-oreka zehazten du. Halaber, enpresaren epe luzeko finantzaketaren berri ematen du. Ondare garbia gehi pasibo ez-korrontea ken aktibo ez-korrontea (epe luzean finantzaturako epe laburraren parte).



ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Maniobra-funtsa = Aktibo korrontea – Pasibo korrontea = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea.

Enpresa honen kasuan, hau da maniobra-funtsa:

$$\text{Maniobra-funtsa} = 195.000 - 130.000 = (100.000 + 100.000) - 135.000 = 65.000 \text{ euro}$$

Aktibo ez-korrontea		Pasibo ez-korrontea + ond. garbia
135.000		200.000
Aktibo korrontea	M F	
195.000	65.000	
		Pasibo korrontea
		130.000

Oreka finantzarioan dago: epe laburreko ondasun eta eskubideekin, aurre egin diezaioke epe laburreko galdagarriari, eta epe luzeko finantzazioak finantzatzen ditu izakinak eta bezero-kontuaren parte handi bat.

TEST MODUKO GALDERAK

1.b 2.b 3.d 4.a 5.c 6.b 7.d 8.a 9.d 10.b



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2019ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2019

ENPRESAREN EKONOMIA *ECONOMÍA DE LA EMPRESA*

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
Galdera teorikoak	
1	1.1
2	2.7
Problemak	
1	2.16, 2.17
2	1.8
3	3.1, 3.2, 3.3
Test motako galderak	
1	1.1
2	1.3
3	1.5
4	1.3
5	3.1
6	2.25
7	1.7
8	2.7
9	2.10
10	2.21